

dauden langileak. Haren plantilla organikoan sartuta daude, eta hainbat toki-erakundetan ematen dituzte zerbitzuak; hona hemen:

- Idazkari kontu-hartzailea.
- Administrari-ofiziala.
- Administraria, lanaldi partzialean.
- Zerbitzu orokorrak, lanaldi partzialean.

L2205385

### AGEZA

#### 2022ko aurrekontua. Behin betiko onespina

2022ko 32. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, otsailaren 14an, iragarkia argitaratu zen, Kontzejuaren 2022ko aurrekontu orokorra jendaurrean egoteko epea abiarazteko, eta epe hori inork erreklamaziorik aurkeztu gabe iragan denez, behin betiko onetsirik gelditu da, bat etorritik Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailearen 2ko 6/1990 Foru Legearen 272. artikuluan xedatuarekin.

#### DIRU-SARRERAK:

3. kapitulua.—Tasak, prezio publikoak eta bestelako diru-sarrerak: 5600,00.

4. kapitulua.—Transferentzia arruntak: 23056,00.

5. kapitulua.—Ondareko diru-sarrerak eta herri-lurretako aprobetxamenduak: 25915,00.

9. kapitulua.—Finantza-pasiboak: 4200,00.

Diru-sarrerak, guztira: 58771,00.

#### GASTUAK:

1. kapitulua.—Langileria-gastuak: 4235,00.

2. kapitulua.—Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak: 34410,00.

3. kapitulua.—Finantza-gastuak: 875,00.

4. kapitulua.—Transferentzia arruntak: 1490,00.

6. kapitulua.—Inbertsio errealak: 8856,00.

9. kapitulua.—Finantza-pasiboak: 8905,00.

Gastuak, guztira: 58771,00.

Agezan, 2022ko martxoaren 28an.—Kontzejuko burua, Alejandro Egea Landarech.

L2205660

### AZAGRA

#### 2022ko aurrekontua. Hasierako onespina

Azagrako Udalak, 2022ko apirilaren 7an egin osoko bilkuran, erabaki zuen hasiera batez onestea 2022ko ekitaldiko aurrekontua eta hura be-

tearazteko oinarriak, bai eta espedientea jendaurrean paratzea ere hamabost egun baliodunean, interesdunek azter dezaten eta egoki iruditzen zaizkien alegazio, kexa edo oharrak aurkez ditzaten.

Azagan, 2022ko apirilaren 11n.—Alkatea, Rubén Medrano Romeo.

L2205683

### BARGOTA

#### Alkatetzaren eskuordetzea, ezkontza zibila egiteko

Erregistro Zibilaren gaineko Erregelamenduaren 238. artikularekin eta hurrengoekin loturik, bat etorritik alkateek ezkontza zibilak egiteari buruz abenduaren 23ko 35/1994 Legean eta Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiaren 1995eko urtarrilaren 26ko jarraibidean ezarritakoarekin, eta Toki Entitateen Antolaketa, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren gaineko Erregelamenduaren 43. artikuluan eta hurrengoetan jasotzen diren ahalmenak erabiliz,

#### EBAZTEN DUT:

1. Udal honetako Batzorde Kudeatzaileko kide María Arróniz Garnicaren esku uztea Bargotako Bake Epaitegian izapidetzen ari den 1/2022 ezkontza zibila egiteko eginkizunak.

2. Ebazpen hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki-taulan, eta interesdunei jakinaraztea.

3. Udalbatzari honen berri ematea, egiten duen hurrengo osoko bilkuran.

Bargotan, 2022ko apirilaren 19an.—Batzorde Kudeatzaileko burua, Cristina Remirez Marquínez.

L2205729

### BAZTAN

#### 2022ko aurrekontua. Behin betiko onespina

Baztango Udalak, 2022ko martxoaren 10ean egin ezohiko osoko bilkuran, hasiera batean onartu zituen 2022. urteko udal aurrekontua eta dagozkion gauzatze-oinarriak.

Hasierako onespinen erabakia 2022ko martxoaren 21eko 57. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Jendaurreko epean ez da alegaziorik aurkeztu. 2022ko aurrekontua behin betiko onartu da.

Aplikatu beharreko araudia: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailearen 2ko 6/1990 Foru Legearen 272. artikulua.

2022KO AURREKONTUA	UDALA (euro)	IKASTOLA, ERAKUNDE AUTONOMOIA (euro)	ZAHAR ETXEA, ERAKUNDE AUTONOMOIA (euro)	LIXURA BAZTAN SL, EMPRESA PUBLIKOA (euro)	KONTSOLIDATUA (***) (euro)
<b>GASTUAK:</b>					
1. kapitulua.—Langileen gastuak	2.952.050,00	835.750,00		208.436,42	3.996.236,42
2. kapitulua.—Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	3.290.665,00	98.950,00	119.772,00	21.287,40	3.300.950,58
3. kapitulua.—Finantza-gastuak	19.400,00				19.400,00
4. kapitulua.—Transferentzia arruntak	771.811,00				656.811,00
6. kapitulua.—Inbertsio errealak	1.573.436,00	14.000,00	23.000,00		1.610.436,00
7. kapitulua.—Kapital transferentziak	2.000,00				2.000,00
9. kapitulua.—Finantza-pasiboak	490.600,00				490.600,00
<b>Gastuak Osotara</b>	<b>9.099.962,00</b>	<b>948.700,00</b>	<b>142.772,00</b>	<b>229.723,82</b>	<b>10.076.434,00</b>
<b>DIRU-SARRERAK:</b>					
1. kapitulua.—Zuzeneko zergak	2.014.000,00				2.014.000,00
2. kapitulua.—Zeharkako zergak	240.000,00				240.000,00
3. kapitulua.—Tasak, prezio publikoak eta bertzelako sarrerak	1.000.600,00	90.000,00	4.397,00	229.723,82	1.094.997,00
4. kapitulua.—Transferentzia arruntak	4.369.923,00	858.700,00	115.150,00		5.228.773,00
5. kapitulua.—Ondareko eta herri-lurren diru-sarrerak	479.438,00		225,00		479.663,00
6. kapitulua.—Inbertsio errealak besterentzea					0,00
7. kapitulua.—Administrazio nagusiak egindako transferentziak eta bertze sarrera batzuk	996.001,00				996.001,00
8. kapitulua.—Finantza-aktiboak			23.000,00		23.000,00
9. kapitulua.—Finantza-pasiboak					0,00
<b>Diru-Sarrerak Osotara</b>	<b>9.099.962,00</b>	<b>948.700,00</b>	<b>142.772,00</b>	<b>229.723,82</b>	<b>10.076.434,00</b>
Giltxaurdi SM merkataritza-sozietatearen gastuen eta diru-sarreraren aurreikuspen-egoera. Sarrerak eta gastuak 427.501,55 euro dira.					

(\*\*\*) Zahar-etxea erakunde autonomoaren kontsolidazio-doikuntzak: gastuetan 4. kapitulutik 115.000 euro eta diru-sarreretan 4. kapitulutik 115.000 euro kentzen dira.

(\*\*\*) Lixura Baztan SL enpresa publikoaren kontsolidazio-doikuntzak: gastuetan 2. kapitulutik 229.723,82 euro eta diru-sarreretan 3. kapitulutik 229.723,82 euro kentzen dira.

Baztanen, 2022ko apirilaren 13an.—Alkatea, Joseba Otondo Bikondoa.

L2205495